



ONDARROAKO UDALA

## DEKRETUA (2020 / 0800)

Ondarroako Udal kirol sailak, "Ondarroako kirolariak historian zehar" deituriko ekimenarekin jarraitu nahi du, denboran zehar kirola sustatzeko eta bide berriak urratzeko asmoz egindako ekintzen bilduma jasotzeko asmoz.

Kirol batzordeburuak dagokion proposamena aurkeztu du, "Emakumeak eta Kirola Ondarroan" jasoko duen ikerketa-bekarako dealdia egitea hain zuzen ere.

Hori ikusita, kreditu atxekipena eskatu da eta egin da, 2020/0026 zenbakiduna hain zuzen ere. Bestalde, espedientea fiskalizatu du Udal kontuhartzaileak eta Bekaren oinarrietan zuzenketa batzuk egin behar direla adierazi du.

Udal kontuhartzaileak aipatutako zuzenketak egin dira Bekaren oinarrietan.

Hori guztia ikusita,

### **Erabaki hau hartu dut:**

1. Emakumeak eta Kirola Ondarroan gaia aztertuko duen ikerketa-bekarako deia egitea.
2. Honi erantsitako oinarriak onartzea ikerketa-beka hau aurrera eramanez ahal izateko.
3. Erabaki honen berri Udal kontuhartzaileari jakinaraztea eta Udal iragarki taulan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta DBNSen argitaratzea.

Ondarroan, 2020ko irailaren 14an

